# Xedapen Orokorrak

**OSASUN ETA KONTSUMO SAILA**

**950**

AGINDUA, 2010eko otsailaren 17koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena. Honen bitartez, toki-erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei diru-laguntzak emateko programa arautzen da, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2005eko martxoaren 30eko Aginduak (2005eko apirilaren 25eko EHAA, 77. zenbakia) toki-erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei diru-laguntzak emateko programaren nondik norako nagusia garatu zuen, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2007ko maiatzaren 29ko Aginduak, 2005eko martxoaren 30eko Agindua aldatu zuen, eta 2008ko abenduaren 9ko Aginduaren bidez 2005eko martxoaren 30eko Aginduaren bigarren aldaketa egin da.

Programa aplikatu den aldian jasotako esperientziak erakutsitakoari jarraituz, komenigarria da laguntza-programa hori bateratu eta berritzea. Horretarako, beste agindu bat emango da, eta horri esker, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak mantendu eta eskabideak baloratzeko irizpideak eta eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak aldatu egingo dira.

Hori dela eta, honakoa

EBATZI DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Xedea.

Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko jarduerak egiten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei emango zaizkien diru-laguntzak arautzea da agindu honen xedea. Diru-laguntzak bi modutan emateko aukera dago: diru-laguntzak banan banan ematea toki-erakundeei, edo bestela, zerbitzua partekatzen duten hainbat toki-erakunderen ordezkaritzei ematea.

***2. artikulua.***– Laguntzak emateko prozedura eta baliabide ekonomikoak.

Xedapen honetan arautako laguntzak emateko diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetan ezarritakoak izango dira.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO**

**950**

ORDEN de 17 de febrero de 2010, del Consejero de Sanidad y Consumo, por la que se desarrolla el programa de ayudas economicas destinadas a entidades locales y entidades promovidas por ellas para la promoción y defensa de los derechos e intereses de las personas consumidoras y usuarias.

La Orden de 30 de marzo de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, publicada en el BOPV n.º 77 de 25 de abril, desarrolló el marco general del programa de ayudas económicas destinadas a entidades locales y entidades promovidas por ellas para la promoción y defensa de los derechos e intereses de las personas consumidoras y usuarias.

La Orden de 29 de mayo de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, modifica la Orden de 30 de marzo de 2005 y la Orden de 9 de diciembre de 2008 realiza una segunda modificación de la Orden de 30 de marzo de 2005.

La experiencia acumulada durante el periodo de aplicación del programa aconseja proceder a una reunificación y reforma del programa de ayudas, mediante una nueva Orden que, manteniendo los mismos conceptos subvencionables, modifique los criterios de valoración de las solicitudes así como la documentación a aportar por los solicitantes.

En su virtud,

RESUELVO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.***– Objeto.

La presente Orden tiene por objeto regular la concesión de ayudas económicas a las Entidades Locales del País Vasco, bien de forma individual, bien en representación de varias Entidades Locales con las que compartan servicio, así como a las entidades promovidas por ellas, que desarrollen actividades dirigidas a la defensa de las personas consumidoras y usuarias.

***Artículo 2.***– Recursos Económicos y procedimiento de concesión de las ayudas.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las ayudas reguladas en la presente disposición procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Ekitaldi bakoitzeko laguntzak emateko deialdian finkatutako guztizko kopurua aldatu ere egin liteke, betiere, diru-laguntzei buruz ebazpena eman aurretik; aldatzekotan, eskatutako laguntzak guztira zenbatekoak diren ikusi behar da, eta, baldin eta Osasun eta Kontsumo Sailak beste programa batzuk burututakoan aurrekontuko diru-kopururik ahitu gabe geratzen bada, aurrekontuetan erabilgarri dagoen diruari ere begiratu behar zaio. Kontsumo Saileko titularraren ebazpen bidez jakitera emando da inguruabar horri.

Lehiaketaren prozedura erabiliz ebatziko dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu guztietarako agindu honetan ezarritako laguntzak –4. artikuluan ezartzen dira kontzeptu horiek–.

***3. artikulua.***– Erakunde onuradunak.

Honako hauek izan daitezke agindu honetan arautako diru-laguntzen onuradun: Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egon, eta gutxienez egunean lau orduz eta astean hogei orduz, kontsumitzaileei informazioa emateko udal bulego (KIUB) bat duten toki-erakundeak eta haiek sustatutako erakundeak –erakundeak bakarka, nahiz zerbitzua partekatzen duten hainbat toki-erakunderen ordezkari gisa hartuta–.

Orobat, KIUB bat ez duten toki-erakundeak eta haiek sustatutako erakundeak ere onuradun izan daitezke, baldin eta aurten halakoren bat irekitzeko proiektua aurkezten badute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, agindu honek arautzen dituen laguntzak emateko, ezinbestekoa izango da izapidetzen ari den itzulketa-prozedura edo zehapen-prozeduraren baten baitan ez egotea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo bere organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan.

***4. artikulua.***– Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak aurrekontu-ekitaldian egindako gastuak ordaintzeko izango dira, gastuok kontzeptu hauetatik eratorritakoak badira:

a) Kontsumitzaileei informazioa emateko udal bulegoen (KIUB) gune eta zerbitzuen funtzionamendua eta jarduerak, alegia, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei argibideak eta prestakuntza emateko jarduerak eta gune eta zerbitzuon argitalpenak argitaratu eta zabaltzekoak.

b) Kontsumo-ikuskaritzako jarduerak gauzatzea.

Los importes globales que se consignen en las convocatorias de concesión de ayudas correspondientes a cada ejercicio podrán ser modificados teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Sanidad y Consumo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución de la persona titular de la Dirección de Consumo.

Las ayudas establecidas en la presente Orden, para cada uno de los conceptos subvencionables señalados en el artículo 4, se resolverán mediante el procedimiento de concurso.

***Artículo 3.***– Entidades beneficiarias.

Podrán resultar beneficiarias de las ayudas económicas previstas en la presente Orden aquellas Entidades Locales ubicadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco, bien de forma individual, bien en representación de varias Entidades Locales con las que compartan servicio, así como las entidades promovidas por ellas que cuenten con la existencia de servicio de Oficina Municipal de Información a las Personas Consumidoras (OMIC) abierto al público al menos cuatro horas diarias y veinte semanales.

Asimismo podrán ser beneficiarias las Entidades Locales, o entidades promovidas por ellas que, no teniendo una OMIC en funcionamiento, presenten un proyecto de apertura en el presente año.

De conformidad a lo establecido en el artículo 50.4 del texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco la concesión de estas ayudas quedará condicionada a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

***Artículo 4.***– Conceptos subvencionables.

Las ayudas previstas en la presente Orden se destinarán a sufragar los gastos realizados en el ejercicio presupuestario, que se deriven de los siguientes conceptos:

a) Funcionamiento y realización de actividades de información y formación de las personas consumidoras y usuarias, y de edición y divulgación de publicaciones de Centros y Servicios destinados a Oficinas Municipales de Información a las Personas Consumidoras (OMIC).

b) Realización de actividades de inspección de consumo.

c) Kontsumitzaileei informazioa emateko udal bulegoen gune eta zerbitzuak instalatzea, eraberritzea, handitzea, hornitzea edo lekuz aldatzea.

II. KAPITULUA
PROZEDURA

***5. artikulua.***– Prozedura hastea.

Agindu honen bidez arautatako laguntzak urtero deituko dira, eta publizitate, lehia eta objektibotasunaren printzipioei jarraituz emango. Deialdia Kontsumo Zuzendaritzako titularraren ebazpen baten bidez egingo da, non honako hauek adieraziko baitira: ekitaldi horretan diru-laguntzak emateko aurrekontuetan jarritako diru-izendapenaren zenbatekoa, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen arabera zehaztuta; agindu honetan ezarritako zenbatekoak KPIaren arabera eguneratzeko aukera; eskabideak aurkezteko epea eta lekua; eta eskabidea egiteko eredua jasotzeko lekuak.

***6. artikulua.***– Eskabideak.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko, Osasun eta Kontsumo Saileko Kontsumo Zuzendaritzari egin behar zaio eskabidea, eta deialdia egiteko ebazpenean zehaztuko diren lekuetan aurkeztu beharko da.

Eskabideak aurkezteko epea gutxienez hilabetekoa izango da, eta Kontsumo Zuzendaritzako titularraren ebazpen batez egingo den urteko deialdian ezarriko da.

***7. artikulua.***– Dokumentazioa.

1.– Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira, oro har:

a) Organo eskumendunak laguntza eskatzeko hartutako erabakiaren egiaztagiria. Zehazki zenbateko laguntza eskatzen den adierazi behar da.

b) Udalaren idazkaritzak edo organo eskumendunak egindako ziurtagiria. Datu hauek zehaztu behar ditu: bulegoa jendearentzat zein ordutan egoten den irekita, kontsumitzaile eta erabiltzaileen galderei erantzuteko eta haien erreklamazio nahiz salaketak bideratzeko.

Honako biztanleriari zerbitzua ematen dien udalerri edo mankomunitateak:

– 20.000 biztanle baino gehiagokoetan gutxienez 20 orduz astean egongo dira zabalik.

– 10.000 eta 20.000 biztanle artekoetan gutxienez 8 orduz astean egongo dira zabalik.

– 10.000 biztanle baino gutxiagokoetan gutxienez 4 orduz astean egongo dira zabalik.

c) Instalación, reforma, ampliación, equipamiento o cambio de ubicación de Centros y Servicios destinados a Oficinas Municipales de Información a las Personas Consumidoras.

CAPÍTULO II
PROCEDIMIENTO

***Artículo 5.***– Iniciación del procedimiento.

Las ayudas reguladas por la presente orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad. La convocatoria se realizará mediante Resolución de la persona titular de la Dirección de Consumo y en la misma se determinará el importe de la consignación presupuestaria destinada al otorgamiento de las subvenciones en ese ejercicio, desglosando las cantidades destinadas a cada uno de los conceptos subvencionados, así como la posible actualización de las cuantías establecidas en la presente Orden conforme al IPC, el plazo y lugar de presentación de las solicitudes, y los lugares donde se facilite un modelo de solicitud.

***Artículo 6.***– Solicitudes.

Las solicitudes para acogerse a las ayudas previstas en la presente Orden habrán de dirigirse a la Dirección de Consumo del Departamento de Sanidad y Consumo, y se presentarán en los lugares especificados en la Resolución de Convocatoria.

El plazo de presentación de solicitudes, que no será inferior a un mes, será el establecido en la convocatoria anual que al efecto se realizará mediante resolución de la persona titular de la Dirección de Consumo.

***Artículo 7.***– Documentación.

1.– La documentación que deberá acompañar a la instancia de solicitud será con carácter general la siguiente:

a) Certificación del Acuerdo del órgano competente acogiéndose a la ayuda, con expresión de la cantidad exacta solicitada.

b) Certificación de la Secretaría del Ayuntamiento u órgano competente en la que se haga constar el horario en el que la Oficina permanece abierta al público para atender las consultas de las personas consumidoras y usuarias y para cursar reclamaciones o denuncias que se les presenten.

Los municipios o mancomunidades que presten sus servicios a una población:

– Superior a 20.000 habitantes permanecerán abiertos al público al menos 20 horas semanales.

– Entre 10.000 y 20.000 habitantes, permanecerán abiertos al público al menos 8 horas semanales.

– De menos de 10.000 habitantes, permanecerán abiertos al público al menos 4 horas semanales.

c) Diru-laguntzaren gai diren jarduerak egiteko beste erakunde batzuei egindako eskabideei buruzko egiaztagiria, udalaren idazkaritzak edo organo eskumendunak egina.

d) Udalaren idazkaritzak edo organo eskumendunak biztanle kopuruari buruz egindako ziurtagiria. Deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31n, KIUBaren lan-eremu den udalerrian, mankomunitatean edo ingurunean zegoen biztanle kopurua adierazi behar da.

e) Zerbitzua merkataritza-baltzu baten bitartez kudeatzen bada, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.

2.– Laguntza 4.a artikuluan aurreikusitako gastuak ordaintzeko baldin bada, aurreko paragrafoan aipatutakoaz gainera, agiri hauek aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera:

a) Deialdiaren aurreko ekitaldian, kontsumoaren arloan KIUBak garatutako jardueren justifikazio zehatza.

b) Funtzionamendu eta jardueren gastuen aurrekontua, behar bezala xehatua eta udalaren kontu-hartzailetzak edo organo eskumendunak ikus-onetsia.

3.– Eskatzen den laguntza 4.b artikuluan aurreikusitako gastuak ordaintzeko bada, artikulu horren 1. paragrafoan adierazitakoaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da eskabidearekin batera: udalaren idazkaritzak edo organo eskumendunak egindako agiria, deialdiaren aurreko urtean zenbat ikuskapen egin diren egiaztatzeko –agiri publikoan jasota egon beharko dute ikuskapen horiek–; zehaztu egin beharko da zein sektore ikuskatu den, zein emaitza lortu den, kontsumoaren alorreko ikuskapenak nork egin dituen eta zer kostu izan duten.

4.– Eskatzen den laguntza ekipamendu berria erosteko bada, artikulu honen 1. paragrafoan adierazitakoaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da eskabidearekin batera: aurrekontu xehatua, udalaren kontu-hartzailetzak edo organo eskumendunak egina.

Ez dira diruz lagunduko 1.000 euro baino gutxiagoko gastuak.

5.– Eskatzen den laguntza kontsumitzaileei informazioa emateko udal bulegoen (KIUB) gune eta zerbitzuak instalatzeko, eraberritzeko, handitzeko, hornitzeko edo lekuz aldatzeko gastuei aurre egiteko bada, artikulu honen 1. paragrafoan adierazitakoaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da eskabidearekin batera: organo eskumendunak proiektua onartzeko hartutako erabakiaren egiaztagiria, eta bertan, lokala jendeari zerbitzua behar bezala emateko moduan dagoela bermatu beharko da, eta horretaz gain, proiektuaren balio ekonomikoa kalkulatu beharko da.

c) Certificación de la Secretaría del Ayuntamiento u órgano competente sobre solicitudes de ayuda a otros organismos para las actividades objeto de subvención.

d) Certificación de la Secretaría del Ayuntamiento u órgano competente sobre la población existente a 31 de diciembre del año anterior al de la convocatoria, en el Ayuntamiento, Mancomunidad o Área en la que la OMIC desarrolla sus servicios.

e) En caso de que el servicio se gestione mediante una sociedad mercantil, certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social.

2.– Si la ayuda solicitada está destinada a sufragar los gastos previstos en el artículo 4.a), deberá acompañar a la instancia de solicitud, además de lo indicado en el párrafo anterior, la siguiente documentación:

a) Justificación pormenorizada de las actividades desarrolladas por la OMIC en materia de consumo en el ejercicio anterior al de la convocatoria.

b) Presupuesto debidamente desglosado de gastos de funcionamiento y actividades visado por la intervención del Ayuntamiento u órgano competente.

3.– Si la ayuda solicitada está destinada a sufragar los gastos previstos en el artículo 4.b) deberá acompañar a la instancia de solicitud además de lo señalado en el párrafo 1 de este artículo, certificación de la Secretaría del Ayuntamiento u órgano competente que recoja el número de inspecciones reflejadas en documento público realizadas en el año anterior al de la convocatoria, especificando los sectores inspeccionados y los resultados obtenidos, así como el personal encargado de realizar inspecciones de consumo y coste del mismo.

4.– Si la ayuda solicitada está destinada a la adquisición de nuevo equipamiento, deberá acompañar a la instancia de solicitud, además de lo señalado en el párrafo 1 de este artículo, presupuesto desglosado visado por la intervención del Ayuntamiento u órgano competente.

No serán subvencionados gastos inferiores a 1.000 euros.

5.– Si la ayuda solicitada esta destinada a sufragar los gastos de reforma, ampliación o cambio de ubicación de centros y servicios destinados a Oficinas Municipales de Información a las Personas Consumidoras deberá presentarse además de lo señalado en el punto 1 de este artículo, certificación del Acuerdo del órgano competente por el que se aprueba el proyecto correspondiente en el que, además de garantizar las condiciones de idoneidad del local para una correcta atención al público, se valorará económicamente el coste del proyecto.

6.– Beste KIUB bat instalatzen bada, artikulu honen 1. eta 5. paragrafoetan adierazitakoaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da eskabidearekin batera:

a) Beste KIUB bat sortzeko erabakia, korporazioak edo organo eskumendunak hartua.

b) Organo eskumendunak emandako egiaztagiria non KIUBa kontsumitzaileei informazioa eta arreta emateko guneen sarean integratzeko konpromisoa jasoko baita.

c) Laguntza eskatzen den urtean atendituko diren erreklamazio eta kontsulta eta egingo diren jarduera-kopurua.

7.– Toki-erakunde batek zerbitzua partekatzen duten erakunde batzuk ordezkatuz aurkezten badu eskabidea, toki-erakunde guzti horiei buruzko agiriak aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera.

***8. artikulua.***– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Kontsumo Zuzendaritzari dagokio agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzea.

***9. artikulua.***– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Kontsumo Zuzendaritzak aurkeztu den eskabidean akatsen bat edo zehaztasun faltaren bat ikusten badu, erakunde eskatzaileari jakinaraziko dio eta hamar (10) eguneko epea emango, akatsa zuzentzeko; halaber, jakinaraziko dio, agindutakoa bete ezean, eskabidea bertan behera utzi duela esan nahiko duela, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

***10. artikulua.***– Epaimahai kalifikatzailea.

1.– Aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, epaimahai bat eratuko da. Hona kideak:

– Kontsumo Zuzendaritzako titularra, zeina lehendakari izango baita.

– Kontsumo Zuzendaritzako bi ordezkari; Zuzendaritzaren titularrak ebazpen-bidez izendatuko ditu zuzendaritzako teknikarien artean. Horietako bat idazkari izango da, eta hitza eta botoa eman ahal izango ditu.

– 2 ordezkari, Euskal Udalen Elkarteak (EUDEL) izendatuta.

2.– Epaimahaiak, diru-laguntzen zenbatekoak finkatzeko ezarritako irizpideei jarraituz, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Kontsumo Zuzendaritzako titularrari.

6.– En el caso de instalación de una nueva OMIC, además de lo señalado en los párrafos 1 y 5 de este artículo, deberá adjuntarse a la solicitud:

a) Acuerdo del pleno de la Corporación u órgano competente en el que se decide crear la nueva OMIC.

b) Certificación del órgano competente en la que se recoja el compromiso de integración de la OMIC en la red de Centros de Información y Atención a las Personas Consumidoras y Usuarias.

c) Previsión del n.º de reclamaciones, consultas y actividades que se prevé atender y realizar en el año en el que se solicita la ayuda.

7.– Cuando la solicitud se presente por una Entidad Local en representación de varias con las que comparta servicio, deberá adjuntarse a la solicitud la documentación referida a todas y cada una de las citadas Entidades Locales.

***Artículo 8.***– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Consumo la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente Orden.

***Artículo 9.***– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

Si la Dirección de Consumo advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud, lo comunicará a la Entidad solicitante, concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, de conformidad con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 10.***– Tribunal Calificador.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un Tribunal Calificador compuesto por los siguientes miembros:

– La persona titular de la Dirección de Consumo, que ejercerá la Presidencia.

– 2 representantes de la Dirección de Consumo, nombrados por Resolución de la persona titular de la Dirección, de entre el personal técnico de la misma. Uno de ellos realizará las funciones de Secretaría, con voz y voto.

– 2 representantes designados por la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL).

2.– Dicho Tribunal, en base a los criterios de cuantificación de las subvenciones elevará la oportuna propuesta de resolución a la persona titular de la Dirección de Consumo.

***11. artikulua.***– Diru-laguntzen izaera eta zenbatekoak.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dira.

2.– Erakunde onuradunek 60.000 euro jaso ditzakete gehienez ere, 4.a artikuluan aurreikusitako kontzeptuagatik.

3.– Erakunde onuradunek 20.000 euro jaso ditzakete gehienez ere, 4.b artikuluan aurreikusitako kontzeptuagatik.

4.– Erakunde onuradunek muga bat izango dute 4. artikuluan jasotako kontzeptuengatik laguntzak jasotzerakoan: ezingo dute gainditu onartutako aurrekontuaren % 70.

5.– Baldin eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuengatik –agindu honen 4. artikuluan adierazi dira horiek– sortzen diren gastuak ordaintzeko diru-laguntzaren guztirakoak –artikulu honetan jasotako ehunekoak eta mugak ezarri ondoren– gainditu egiten badu aurrekontuan erabiltzeko dagoen kreditua, erakunde onuradun guztiei hainbanaketa aplikatuko zaie, ondorengo artikuluan ezartzen diren balorazio-irizpideak aplikatuta lortzen den puntuazioaren proportzioan.

6.– Eskabide guztiak kontuan hartu ostean, diruz lagundu daitezkeen kontzepturen batean –4. artikuluan jaso dira horiek– horretarako jarritako diru-izendapena agortu gabe geratu bada, gainerako kontzeptuetarako jarritako dotazioa handitzeko erabili ahal izango da soberan geratutakoa.

***12. artikulua.***– Balorazio-irizpideak.

1.– Emandako diru-laguntzei buruzko ebazpen-proposamena egiteko, irizpide batzuk hartuko dira kontuan. Irizpide horiek epaimahaiak onartutako eta aurkeztutako aurrekontuari aplikatuko zaizkio, eta honako hauek izango dira:

a) Agindu honen 4.a eta 4.c artikuluetan jasotako kontzeptuengatik sortutako gastuak:

1) Aurreko urtean zenbat erreklamaziori eskaini zaien arreta, ondoko taularen arabera, Kontsumonet aplikazioan jasotakoak: 30 puntu.

– 10.000 biztanle arteko udalak edo mankomunitateak, 2 erreklamazioko puntu 1.

– 10.000tik 20.000 biztanle arteko udalak edo mankomunitateak, 4 erreklamazioko puntu 1.

– 20.001etik 50.000 biztanle arteko udalak edo mankomunitateak, 10 erreklamazioko puntu 1.

– 50.000 biztanletik gorako udalak edo mankomunitateak, 20 erreklamazioko puntu 1.

***Artículo 11.***– Naturaleza y cuantía de las subvenciones.

1.– Las ayudas contempladas en la presente Orden se materializarán a través de subvenciones no reintegrables.

2.– La cuantía máxima que una Entidad beneficiaria podrá obtener por el concepto subvencionable previsto en el artículo 4.a) será de 60.000 euros.

3.– La cuantía máxima que una Entidad beneficiaria podrá obtener por el concepto subvencionable previsto en el artículo 4.b) será de 20.000 euros.

4.– En ningún caso la cuantía que una Entidad beneficiaria podrá obtener por los distintos conceptos subvencionables recogidos en el artículo 4 podrá ser superior al 70% del presupuesto admitido.

5.– Cuando el importe total de las subvenciones a conceder para sufragar los gastos procedentes en los distintos conceptos subvencionables recogidos en el artículo 4 de esta Orden, una vez aplicados los porcentajes y limitaciones previstos en el presente artículo, supera el crédito presupuestario disponible, se aplicará a todas las Entidades beneficiarias el correspondiente prorrateo, en proporción a la puntuación obtenida en aplicación de los criterios de valoración establecidos en el artículo siguiente.

6.– En el supuesto de que en alguno de los conceptos subvencionales recogidos en el artículo 4, una vez atendidas todas las solicitudes, no se haya agotado la dotación económica asignada, el excedente correspondiente podrá incrementar la dotación destinada a los restantes conceptos.

***Artículo 12.***– Criterios de valoración.

1.– Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las subvenciones concedidas, se tendrán en cuenta los siguientes criterios, que se aplicarán al presupuesto presentado y aprobado por el Tribunal Calificador:

a) En relación con los gastos derivados de los conceptos subvencionables previstos en el artículo 4.a) y 4.c):

1) Número de reclamaciones atendidas en el año anterior y recogidas en la aplicación informática Kontsumonet según la siguiente tabla: 30 puntos.

– Municipios o mancomunidades de hasta 10.000 habitantes a razón de 1 punto para cada 2 reclamaciones.

– Municipios o mancomunidades entre 10.000 y 20.000 habitantes a razón de 1 punto para cada 4 reclamaciones.

– Municipios o mancomunidades entre 20.001 y 50.000 habitantes a razón de 1 punto para cada 10 reclamaciones.

– Municipios o mancomunidades de más de 50.000 habitantes a razón de 1 punto para cada 20 reclamaciones.

2) Aurreko urtean zenbat kontsultari eskaini zaien arreta, ondoko taularen arabera, Kontsumonet aplikazioan jasotakoak: 20 puntu.

– 10.000 biztanle arteko udalak edo mankomunitateak, 5 kontsultako puntu 1.

– 10.000tik 20.000 biztanle arteko udalak edo mankomunitateak, 10 kontsultako puntu 1.

– 20.001etik 50.000 biztanle arteko udalak edo mankomunitateak, 20 kontsultako puntu 1.

– 50.000 biztanletik gorako udalak edo mankomunitateak, 30 kontsultako puntu 1.

3) Aurreko urtean kontsumoaren alorrean egindako jarduerak: 20 puntu.

– Informazio-, prestakuntza- eta heziketa-jarduerak, 5 puntu.

– Kontsumoa ikuskatzeko jarduerak, 5 puntu.

– Enpresak kontsumoko arbitraje-sistemara atxiki daitezen dagokien lurralde-eremuan sustatzeko ekintzak, 5 puntu.

Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eskaintzen badira jarduerak, 5 puntu gehiago emango dira.

4) KIUBak zenbat biztanlerentzat lan egiten duen, ondoko taularen arabera:

– 5.000 biztanle arte, 2 puntu.

– 5.000tik 10.000 biztanle arte, 4 puntu.

– 10.001etik 15.000 biztanle arte, 6 puntu.

– 15.001etik 20.000 biztanle arte, 8 puntu.

– 20.001etik 30.000 biztanle arte, 10 puntu.

– 30.001etik 40.000 biztanle arte, 12 puntu.

– 40.001etik 50.000 biztanle arte, 14 puntu.

– 50.001etik 75.000 biztanle arte, 16 puntu.

– 75.001etik 100.000 biztanle arte, 18 puntu.

– 100.000 biztanletik gora, 20 puntu.

5) Kontsumitzaileei informazioa emateko udalbulegoaren jarduna udalerrien mankomunitate baterako bada, puntuak hauek izango dira: 10 puntu.

6) KIUB berri bat sortu eta instalatzen den kasuan, eskatzaileak eskaera-urteari dagozkionez egiten dituen aurreikuspenen arabera baloratuko dira paragrafo honetako 1. et 2. puntuak.

